



Estutu bat gehiago

Eusko Jaurlaritzak zorrotzu egin ditu koronabirusari aurre egiteko neurriak. Bien bitartean, eskualdean mobilizazioak egin dituzte osasun publikoa defendatzeko. Bestalde, Durangoko Udalak eta EHUKo ikerlari talde batek elkarlana hasi dute PCR proben arakatze sistema hobetzeko. • 2

"Euskarazko hip hopean gaur egun egiten ari den lanaren emaitza urte batzuk barru ikusiko da"

Musika • Peio Azkarate eta Arkaitz Cayado 'Itsua' durangarrek 'Jostailua eta harria' diskoa kaleratu dute. Zazpi abestitan euren ezinegon liriko zein musikalak batu dituzte. Diskoa udaberrirako prest zuten arren, osasun alerta egoeraren ondorioz publikazioa atzeratzea erabaki zuten. Abestiek "fres-

kotasuna" ez galtzeko, diskoa urrian kaleratzea erabaki zuten. Abendura arte itxaron beharko da zuzenean gozatzeko aukera edukitzeko. Hain zuzen ere, abenduaren 8an Ahotsenean eskainiko dute kontzertua, Durangoko Azokaren barruan. Beat Salad diskoetxeagaz kaleratu dute diskoa. • 25



Toloto, Elorrio eraldatu duen proiektua

Elorrio • Toloto erreka berbideratu dute udalaren eta URAREN hitzarmen bati eskerrak. • 10



Dekolonitateaz aritzeko jardunaldia martxan da Durangon

Airearen Kalitatearen Mahaia sortu dute Durangon

Durango • Alderdi politikoek, udal teknikariek, Durangaireak eta Durangoko enpresari batzuek sortu dute foroa. Gobernu taldeak "pausoak emateko" eskatu dio Jaurlaritzari. EAJk Ingarumen Saila batu gura du mahaira • 5





Eguazten iluntzean egin zituzten elkarretaratzeak. Irudian, Durangoko Landako anbulatorioaren aurrean egindako mobilizazioa.

Elkarretaratzeak egin dituzte osasun sistema publikoa babestu eta baliabide gehiago eskatzeko

Durangaldeko osasun etxeen atarietan protestak egin dituzte asteon. Bestalde, EHUKo ikerlari talde batek eta Durangoko Udalak elkarlana hasi dute. Baheketan positibo eman duten herritarrei deitu diete ikerketa batean parte hartzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko osasun etxeetako atariak aldarrikapenen lekuko izan dira asteon. Ehunka lagunek elkarretaratzeak egin dituzte osasungintza publikoa babesteko eta berau baliabide gehiagoz hornitzeko. Lehen Arretarako baliabide gehiago eskatzeaz gainera, osasungintzara bideratutako gutxie-

nezko inbertsioa Barne Produktu Gordinaren %7 izan dadin eskatu dute. Bestalde, murrizketarik eta pribatizaziorik ez egitea ere eskatu dute. Besteak beste, Elorrioko, Zaldibarko, Zornotzako, Iurretako eta Durangoko anbulatorioen aurrean egin zituzten protestak, eguazten iluntzean. Durangon batutakoek, esate baterako, txalo

zaparrada eskaini zieten osasun langileei.

EHUren ikerketa

Elkarretaratzeetatik aparte, osasungintzari loturiko beste albiste batzuk ere egon dira asteon. Adibidez, Durangoko Udalak eta EHUK asteon hasitako elkarlana. Kontua da EHUKo ikerlari talde bat korona-

birusagaitik positibo eman duten herritarren arakatze sistema iker-tzen dabilela, horri hobekuntzak zelan egin dakizkiokeen ikusteko. Horren aurrean, Durangoko Udalak dei egin die orain aste batzuk egindako baheketan positibo eman zuten herritarrei, EHUGaz hartu-emanetan ipini daitezen. Durangoko Udalak hainbat baliabide ipini

ditu herritarren eskura ikerketa errazteko: telefono zenbaki bi eta helbide elektronikoko bat, besteak beste. Baheketan positibo eman dutenek 946 030 022 telefono zenbakira deitu, 676 242 429 telefonora whatsapppe idatzi eta covid19ikerketa@gmail.com helbidera idatzi dezakete. Udalak honako ordutegi hauek ipini ditu telefono deiak egiteko: goizean, 10:00etatik 14:30era, martitzene-tik domekara; eta arratsaldean, 16:00etatik 18:30era, eguaztenetik barikura. Udalak jakinarazi du

Durangoko Udalak eta EHUKo ikerlari batzuek elkarlana hasi dute PCR-en arakatzea hobetzeko

udal teknikariak egongo direla telefonoaren beste aldean, eta horiek galdetegi bat pasatuko dietela herritarrei. Batutako informazioa EHUKo ikerlariengana bideratuko dute, modu konfidentzialean.

Kasu positiboak gorantz

Edizio hau ixterako, Eusko Jaurlaritzak neurri zorrotzagoak ezartzeko aukerak zituen aztergai mahai gainean. Klean bolo-bolo zebilen Iñigo Urkullu lehendakariak neurri berriak hartuko zituela, baina edizioa ixterako jakinarazi barik zituen neurriok. Bien bitartean, herrikako kasu positiboek gorantzko joerari eutsi diote. Osasun Sailak eguaztenean jakinarazi zuenez, Durango, Abadiño eta Zornotza pandemiaren eremu gorrian zeuden. Elorrio, oster, eremu laranjan mantendu zen.

Autobus erabiltzaileak, jende pilaketekin arduratuta

Sei lagunetik gorako batzarrak debekaturik daudela-eta, autobus erabiltzaile askori kontraesankorra egiten zaie ordu jakin batzuetan autobus publikoetan ikusten den irudia. Sare sozialetan hainbat erabiltzailek salatu du lanera edo unibertsitatera joan behar den orduetan jende pilaketak egoten direla autobus barruetan, baita errefortzuzko autobusa ipini arren ere.

Durangon, Madalenako geltokira bertaratu eta hainbat erabiltzailearen iritzia jaso du ANBOTOK. Orokorrean, kezka adierazi dute, sarritan gura baino estuago doazelako autobusean, batez ere ordu jakin batzuetan. Gaur egun bizi dugun egoera honen aurrean, garraio publikoko linea batzuk beste autobus batzuekin indartzea egoki ikusiko luketela aipatu dute.



AITANE
SEGOVIA

Durango

Goizero hartzen duzu autobusa?

Bai, unibertsitatera joateko. Goizetan autobusak bete-beteta joaten dira eta hori arrisku bat da. On-doa baten bat jesartzen denean, asintomatikoa izan daiteke eta dudak sortzen dira...

Egokitu zaizu COVID kasurik inguruan?

Orain aste batzuk PCR proba egin zidaten sintoma batzuk nituelako. Negatibo eman nuen, baina emaitzak jaso bitartean, lau egunean, etxean konfinatuta egon nintzen.



JONE
AZPITARTE

Durango

Autobusetan nabaritu izan duzu jende pilaketarik?

Bai, goizetan jende gehiegi pilatzen gara autobusean sarritan. Batzuk zutunik edo eskaileretan jesarrita joaten dira. Eta gero, klasera hel-tzean, sakabanatuta gaude. Badakit ez dena erraza hau dena kudeatzea, eta ez diot hartzen diren neurriak ez direnik logikoak, baina gauza batzuk ez zaizkit ulergarriak egiten. Autobusean batzuetan bizi dugun egoera ikusita, ondo ikusiko nuke autobus gehiago ipiniko balituzte.



ARAIA
GIL

Durango

Seguru sentitzen zara autobusean?

Egunero hartzen dut autobusa eta, nire ustez, ez dago segurtasunik. Nik hartzen dudana beteta dago beti. Nik beti ipintzen dut maskara, baina batzuek ez dute beti ipintzen. Behin, horrelako egoera batean, autobusetik jaistea eta hurrengo hartzea erabaki nuen. Bestetik, arraroa iruditzen zait ordu jakin batetik aurrera klean ezin egotea eta, gero, biharamunean autobusetan horrelako pilaketak egotea. Autobus gehiago ipintzea ondo ikusiko nuke.



BELEN
ZUBIAURRE

Durango

Askotan hartzen duzu autobusa?

Normalean, kotxean mugitzen naiz eta gutxitan hartzen dut autobusa. Urriko arratsalde batean hartu nuen autobusa azkenengo, Berrizera joateko, eta orduan ondo joan ginen, jende pilaketarik barik, eta ez zegoen kezatzeko motiborik. Beste kontu bat da goizetan gertatzen dena. Ni astegunetan goizero igarotzen naiz Madalenatik, eta ordu jakin batzuetan jende asko egoten dela ikusten dut.

“Durangon baheketa egin ezean positibo eman duen %1,8 hori kudeatu barik geldituko litzateke”

Iñaki Agirrebeitia medikuak barru-barrutik jarraitu du Durangoko baheketa; martxotik Durangoko Lehen Arreta Zerbitzuko arduraduna da



Iñaki Agirrebeitia
Celaya
Durangoko Lehen Arreta
Zerbitzuko arduraduna.
Abadiño | 1977

aurreikusitako txanden %50 hartuta zeuden, eta beste herrietako esperientzia ikusita baheketaren amaiera aurreratzea erabaki zen. Horretaz gainera, gogoratu beharra dago gure erakundeak egin-dako profesionalen mobilizazioa, gauden egoera honetan neurtu behar dugula.

Baheketaren ostean emaitzak berandu jaso izana kritikatu dute hainbat herritarrek. Zergaitik gertatu da hori?

Ulertzekoa da herritarren haserrea. Arazo teknikoak izan dira tartean, jakina da lagin nahikotxo sare publikoko beste laborategi batzuetara bideratu izan behar direla eta beste kasu batzuetan proba errepikatzea suposatu izan du. Arazo horiek ez dira izan planifikazio ezagaitik, eta baheketaz gainera gure eskualdeko beste arloetan ere eragina izan du. Hone-taz jabetu orduko gure esku izan diren baliabideak erabili ditugu konponbide bat lortzeko.

Baheketa alde batera utzita, Durangoko anbulatorioan egunero egiten duzuen lanari buruz galdetu gura nizuke. Zelan bizi izan duzue egoera hau eta zelan zaudete une honetan?

Ezaguna da pandemiak osasun arloan izan duen eragina. Izatez, gizarteak pairatu dituen aldaketen antzerakoak izan dira. Orokorrean, pandemiaren lehenengo boladan, gizartearen eta osasun arloko "kontrakzioa" bizi izan dugu. Koronabirusak gaixotasun arruntak isilarazi zituen eta ospitalak gainezka zeuden berriak baino ez genituen. Lehen Arretan, antolaketa aldaketa sakon bati aurre egin diogu, gaixotasun arruntak eta Covid gaixoa dutenak

egoki artatzeko. Goraipatzekoa da taldeak (estamentu guztiak) izan duen jarrera. Ordutegi eta antolaketa aldakorak, etengabeko eza-gutza eta egoera kliniko gogorrei aurre egiteko. Gaur egun, aurreko egoerak indarrean jarraitzen du, nekea nabaritzen da, baina baita profesionaltasuna ere.

Lehen Arretak hainbat kritika jaso ditu lanaren zati bat telefonoz egitearren. Langileok zelan bizi duzue hori?

Argitu beharra dago aurrez aurreko kontsultak, bai koronabirusari bai beste gaitzei buruzkoak, mantendu izan ditugula. Prestazio hori kudeatzeko era izan da aldatu dena, telefono bidezko lehen arreta. Alde hau da oraingo ikuspuntutik gizarteak txarto ikusten duena, baina gogoratu beharra dago, orduko egoera ezberdina zela.

“

Azaroaren 2an ditugun datuen arabera, baheketan landutako 6.122 laginen % 1,8k emaitza positiboa eman dute”

Kasu asko artatzen genituen, horietariko asko larriak. Telefono bidezko aurrekontsultek, gehiegizko kontsultak eta osasun zentroetako gaixoentzako segurantzak bermatzea erraztu dute. Osasun zentro handi batek duen arazoetariko bat harrera eta gaixoen joan-etorria zaintzea da, betiere larregiko aforoak saihesteko. Maiatzetik hona, zirkuitu egokiak lantzen ari gara aurrez aurreko txanda zuzena hartu ahal izateko. Ez dugu gaixoak aurrez aurre ikusteko arazorik, are gehiago, prestazio horretan gaude trebatuta. Telefono bidezko kontsulten limitazioez jabetzen gara, baina lehen erabiltzen genituen moduan, posible da, herritarrek horrela gura izanez gero, egoera konkretu batzuk atxandituko.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Intzidentzia tasak milaren bueltan jarraitzen du Durangon, azken egunetako positibo kopuruak behera egin duen arren. Orain aste bi, Osasun Sailak baheketa egin zuen 13tik 40 urtera arteko durangarren artean. Iñaki Agirrebeitia Durangoko Lehen Arreta Zerbitzuko burua da. Parte-hartzea ontzat ematez gainera, herritarrei eskerrak eman gura izan dizkie.

Zein balorazio egiten duzue Durangoko baheketaren inguruan?

Herritarren parte-hartzea gorai-patzekoa da. Baheketara deiturikoen erdiek euren denbora eskaintzeak borondate ona, gizarte eta herritartasun kontzientzia eta

gaixotasunarekiko ardura adierazten ditu.

Zeintzuk dira daturik esanguratsuenak?

Azaroaren 2an ditugun datuen arabera, baheketan landutako 6.122 laginen %1,8k emaitza positiboa eman dute. Adin taldeei begira, 18 urtera artekoak dira deialdira etorri direnen gehien-go. Posible da, eskolekin batera egindako deialdia izan delako. Eskolek arlo honetan egindako lana eskertzeko aprobetxatu gura nuke. Kasu positiboak ez dira pilatu adin tarte konkretu batean.

Datu horiek aztertuta, zein ondorio atera daiteke?

Ondoriorik argiena da Durangon baheketa egin ezean %1,8 hori

kudeatu barik geratuko litzatekeela. Bestalde, ohiko miaketetan badakigu positiboekin kontaktua izan dutenen %1,4 PCR positiboak izan direla (urriko datuak), beraz, baheketak dakarren onura teorikoa miaketa taldeen konplementarioa den lanean dago.

Parte-hartzea %46koa izan da deituta zeuden 13tik 40 urtera arteko herritarren artean. Kopuru hori ontzat ematen duzue? Aurreikusitakoa baino lehenago amaitu zenuten baheketa.

Urriaren 24an jabetu ginen aurreko egunaren txanden erdia eskatu zela, eta 25erako aurreko egunaren erdia aldi berean. Txanda eskaeraren bilakaera behera zihuan, nabarmen. Ordurako,

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK · TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar
635 74 84 65

www.carpinteriaaterpe.com

Ander Maiztegi
655 73 75 51

A. Urreta
podólogo

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

R.P.S. 214/06

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404



Durango Bilgune Feministako kideak, iazko urrian.

"Emakume euskaldun eta zuri gisa ditugun pribilegioez hausnartzeko gonbitea egin digute"

Durango Bilgune Feministak hartu-eman kolonialez hausnartzeko jardunaldia egingo du azaroaren 29an, Plateruenean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ariketa deserosoa izan daiteke beharbada. Baina beharrezkoa. Eta osasungarria ere bai, epe luzera begira. Durango Bilgune Feministak hartu-eman kolonialez hausnartzeko jardunaldia antolatu du. Abenduaren 12an Emakume Abertzaleen VIII. Topaketa Feministak egingo dituzte Errenterian (Gipuzkoa) eta, aurren, dekolonitatearen gaia aztertuko dute. Baina hitzordu hori ailegatu baino lehen, Durango Bilgune Feministak beste jardunaldi bat egingo du Plateruenean, motorrak berotzen hasteko.

Kontua da mugimendu feminista "espazio euskaldun zuri gisa" interpelatu izan dela, eta interpelazio horren aurrean praktika dekolonialez hausnartzearen beharra azaleratu dela. "Abiapuntua da

Euskal Herrian pertsona migratuak eta arrazalatuak daudela, eta horrenbestez, mugimendu feministan ere badaudela. Espazio askotan elkarlanean gaude. Eta normala denez, elkarlan guztietan, prozesu kolektibo berriak sortzen direnean, landu beharreko zenbait gako berri agertzen dira. Alde horretatik, euskaldun eta zuri gisa ditugun pribilegioen inguruan hausnartzeko gonbitea egin digute. Gonbite interesgarria da Euskal Herriko feministontzat eta zuriontzat", azaldu dute Durango Bilgune Feministako kideek.

"Gonbidapen hori, gainera, asmitu egiten dugu zelanbait. Gauza askogaz sentitu zaitezke interpelatuta, baina gero zuri dagokizu urratsa ematea edo gaia bere horretan geratzea. Kasu honetan, urrats

kolektibo bat egitea adostu da", sakondu dute. "Gure pribilegioez hausnartzeko beharra dago. Ez da nahikoa esateagaz, *Oh! Bai. Zeinen inportantea den hori. Zuekin gaude. Urratsak ematea eskatzen du. Bestela, denak antzera batean jarraituko du. Mugimendu feministak gizo-*

"Topaketok irudikatzen dugun Euskal Herri burujabe eta feministari begira egiten dira"

"Gauza askogaz sentitu zaitezke interpelatua, baina gero zuri dagokizu urratsa ematea"

nezkoei eskatzen dien gauza bera da, zelanbait. Hau da: guk ere gura dugu gizonen pausoak eman ditzaten. Baina urrats hori haiek eman behar dute. Dekolonitateagaz ere antzeko ariketa egin gura dugu. Kontzientzia hartu, horren ostean praktikara eraman eta pausoak ematen hasteko", esan dute.

Migrazioa eta globalizazioa

Etxeko zein nazioarteko albisteei begiratzea besterik ez dago topaketen gaia testuinguruari modu estuan lotuta dagoela konturatze-ko: errefuxiatuak han-hemenka, Europaren gotortze bat, Ameriketako Estatu Batuetan azken urteotan egondako olatu kontserbadorea eta emakumeenganako indarkeria amaiezina. Bilgune Feministaren esanetan, askotariko zapalkuntzek

"elkar gurutzatzen dute" lurralde, gorputz eta espazioetan. "Ez da kasualitatea arrazalizatutako pertsonen gutariko askok baino zapalkuntza biolentoagoak bizitzea.

"Arrazalatuak eta migranteek hainbat zapalkuntza mota bizi ditzakete aldi berean"

"Protagonismoan jausi barik, ardurak hartzeko eta gauzak berrikusteko bide bat hasi gura dugu"

Hainbat zapalkuntza mota bizi ditzakete aldi berean", azaldu dute. Kolpe bat migratua izateagaitik. Bigarren bat arrazalatuak izateagaitik. Emakumea izateagaitik ere bai, eta beste bat, klase baxukoa izateagaitik. "Topaketa hauek aurrera begira irudikatzen dugun Euskal Herri burujabe eta feminista horri begira egiten dira", diote.

Durango Bilgune Feministako kideek azaldu dute mugimendu feministaren barruan emakume aniztasuna dagoela. "Gu ikaskuntza prozesu batean gaude alde horretatik. Emakume migratu eta arrazalatuak bidea egiten hasi dira. Interpelatu gaituzte. Eta protagonismoan jausi barik, ardurak hartzeko eta gauza batzuk berrikusteko bide bat hasi gura dugu, haiei aitortza bat eginda. Badugu zer ikasi", adierazi dute.

Izena emateko aukera

Durango Bilgune Feministak Lokaztu gaitzen, topaketei begirako kokapen saioan lelopean egingo du jardunaldia. Azaroaren 29an egingo dute, Plateruenean. Goizeko saioa izango da, 10:00etatik 13:00etara bitartekoa. Segurtasun neurri guztiekin egingo dute. Izena emateko epea zabalik dago. durangkobf@gmail.com helbidera idatzita eman daiteke izena.

Adierazi dutenez, gertutasuna eskainiko duen saioa izango da. Hausnarketa eragingo duena, baina hurbila, gertukoa. Beldurrik barik izena ematera deitu dute.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko azaroaren 6a
18. urtea - 827. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga eta Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



TAO eremua herriko kale gehiagotara zabalduko dute aurrerantzean.

Durango TAO eremuak zabaldu eta 'trantsizio kaleak' ezarriko dituzte

Durango udalbatzak Trafikoaren eta Aparkalekuen Ordenantza berri du. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak ordenantza berritzearen alde egin dute. EAJ abstenitu egin da eta PSE-EEK aurka bozkatu du. Araudiak hainbat berrikuntza dakartza Durango kaleetara

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Berrikuntzak datoz Durango kaleetara. Udalbatzak Trafikoaren eta Aparkalekuen Ordenantza berri du orain egun gutxi, eta, horren arabera, hiru aldaketa nagusi islatuko dira herriko kaleetan. Honako hauek dira:

TAO eremua Landako, Txibitena eta Muruetatorre aldera hedatuko da

1. OTA GUNE GEHIAGO

Orain arte TAO gune bi egon dira, baina lau egongo dira aurrerantzean. Aritz Bravo zinegotziak azken osoko bilkuran azaldu zuenez, zonifikazioa hedatzeak herriko "barne zirkulazioa murriztea" ekarriko du.

1. GUNEA. Durango Alde Zaharretik hilerrirainoko tartea hartuko du. Antso Estegiz, Larrasoloeta eta San Frantzisko kale inguruak hartuko ditu.

2. GUNEA. Alde Zaharretik Askatasun Etorbidera bitarteko tartea hartuko du. Baita anbulatorio zaharren ingurua eta handik San Rokerainoko eremua ere.

3. GUNEA. Sasikoa kaletik Iurretara bitarteko eremua arautuko du, Madalena eta San Inazio auzoen inguruetakoa.

4. GUNEA. Landako, Txibitena eta Muruetatorre inguruak arautuko ditu gutxi gorabehera. Ordenantza be-

rriaren arrastorik esanguratsuenetarikoz batzuk inguru horietan igarriko dira. Udal gobernu taldeko kideek diotenez, TAO gunea kale horietara hedatzeak "eskari historiko" bati erantzuten dio. "Kirol eta osasun azpiegiturak daude inguru horietan. Herritarrek sarri esan digute gatx izaten dela horietara ailegatzea eta bertan aparkatzea", esan dute.

2. TRANTSIZIO KALEAK DATOZ

Ordenantza berriak dakarren berrikuntza nagusi bat trantsizio kaleak dira. Baina zer da trantsizio kale bat? Bada, aurrerantzean existituko den figura berri bat. Teknikoki TAO eremutik kanpora dauden kaleak dira, baina TAO guneetatik duten gertutasunagaitik, eta, ondorioz, jasaten duten

trafiko presioarengaitik, horiei izaera berezi bat ematea erabaki du udalak. Bi izango dira trantsizio kaleak: Askatasun Etorbidea eta Alluitz kalea. Eta zein izango da bertako funtzionamendua? Kale horietan bizi diren herritarrek egoiliarren erregimenaren eraginpean aparkatzeko aukera izango dute. Funtzionamendu horrek kale bakoitzaren atari batzuei eragingo die. Ez kale osoari.

3. IRAUPEN LABURREKO GUNEA

Errotazio handiko guneak zona gehiagotan ezarriko dira. Orain arte, Landakoko osasun etxearen inguruan egon da errotazio handiko gunea. Bada, aurrerantzean, anbulatorio zaharren inguruan eta Zumalakarregi kalean ere ipiniko dituzte.



Alluitz kaleak trantsizio kale izaera izango du aurrerantzean.

Amankomunazgoak Elkartegira lekualdatuko ditu bere zerbitzuetariko batzuk

Behargintza, Adineko, Adikzioen Prebentziorako zerbitzua eta Euskara zerbitzua dira bertara aldatuko direnak



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Amankomunazgoak Durango Elkartegira lekualdatuko ditu bere zerbitzuetariko batzuk. Behargintza, Adineko, Adikzioen Prebentziorako zerbitzua eta Euskara zerbitzua, adibidez, Landako Erakustazokaren ondoko eraikinean atonduko ditu aurrerantzean.

Kontua da orain hilabete gutxi Durango Udalak oktogonoa uzteko eskaria egin ziola Amankomunazgoari. Azken honek, bere lan espazioak birmoldatzera behartuta ikusi du bere burua, eta, orain, arazoari irtenbidea topatu dio. Izan ere, Amankomunazgoak akordioa sinatu du Azpiegiturak sozietate publikoagaz. Eta

horren ondorioz, aurrerantzean Elkartegiko bigarren solairuan eskainiko ditu zerbitzu batzuk. Adikzioen Prebentziorako Zerbitzua, esaterako, dagoeneko Elkartegian eskaintzen ari da. Azpiegiturak sozietate publikoagaz sinatutako akordioak bost urteko iraupena du.

Elkarteak, oktogonoan

Durango Udalak Pinondo Etxea zarratu behar izan zuenean, herriko hainbat elkarte lanerako espaziorik barik geratu zen. Orain, elkarte horietariko batzuk oktogonoan kokatu ditu udalak. Esate baterako, Berbaro eta JAED bertan ari dira lanean.

Airearen Kalitatearen Mahaia osatu dute Durango, asteen

Udal gobernu taldeak "pausoak emateko" eskatu dio Jaurlaritzari. EAJk mahaira batu gura du Ingurumen Saila

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango airearen kalitatea lantzeko sortu den foroa martitzenean batu zen lehenengoz. Bertan bildu ziren Durango Udalean ordezkariak duten alderdi politikoak, udaleko teknikariak, Durangairea plataformako kideak eta Durango enpresa batzuetako ordezkariak. "Mahai hau tresna bat da, denon artean urrats berriak eman ditzagun Durango garbiagoa, osasuntsuagoa eta iraunkorragoa izan dadin", azaldu dute asteen Aritz Bravo eta Jorge Varela udal ordezkariak. "Orain, lehenengo urrats honen ondoren, ibilbide orria zehazten hasiko gara", azaldu dute.

Bidea luzea izango dela aurreikusi daiteke, Airearen Kalitatearen Mahaiak lehenengo batzarra amai-

tu eta berehala ailegatu direlako erreakzio politikoak. Durango Udalak "benetako pausoak emateko" eskatu dio Eusko Jaurlaritzari.

Durango EAJk "eszeptiko" irten du lehenengo bileratik. Mahai-ko "lantaldea eraginkorra izan

"Mahai hau tresna bat da denon artean urrats berriak emateko Durango garbiagoa izan dadin"

dadin", Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko teknikari adituen parte-hartzea "derrigorrezkoa" izan behar dela defendatu du EAJk. "Elkarlanerako prest" daudela gaineratu dute jeltzaleek.



Aritz Labrador bandako zuzendaria eta Luziano Martinez kultura zinegotzia, aurkezpenean.



Zornotzako Musika Banda. ARTXIBOA.

Zornotzako Musika Bandak askotariko arte diziplinekin osatutako kontzertu sorta eskaintzeari ekin dio

Zornotzako Musika Bandak 'Arteen doinuak' kontzertu zikloa hasi zuen joan zen asteburuan. Hemendik eta uda ailegatu arte, askotariko arte diziplinekin osatutako kontzertuak eskainiko ditu Zornotzako beste hainbat artistaren laguntzagaz. Ia emanaldi guztiak Zornotza Aretoan egingo dituzte, baina baliteke uztailakoa aire librean egitea

ZORNOTZA • E.H./A.M.

Dena prest eta dena martxan. Zornotzako Musika Bandak diziplina anitzeko kontzertu sorta hasi du *Arteen doinuak* izenpean. Ikusleengan "sentsazio desberdinak" sortzeko helburuagaz dator kontzertu zikloa. Aritz Labrador Musika Bandako zuzendariak joan zen asteko agerraldian eman zituen xehetasunak. Guztira, sei kontzertu izango

dira, eta "zinema, literatura, dantza, sukaldaritza, pintura eta dantza" elkartuko dituzte musikagaz, besteak beste. Gainera, horretarako, Zornotzako hainbat artistak ere parte hartuko dutela aurreratu zuen Labradorrek.

Kontzertu sorta martxan dago. Joan zen zapatuan egin zuten lehenengo emanaldia, Zornotza Aretoan. 'Zinemaren doinuak' izen-

pean, zinemaren eta musikaren arteko hartu-emanak aletu zituzten. Labradorren berbetan, "XX. mendetik XXI. mendera bitarteko bidaia" izan zen. Besteak beste, Star Wars, Harry Potter eta Gladiator pelikuletako soinu bandak jo zituzten. Emankizunean, Jon Gonzalez bideografoak eta Eider Etxeandia abeslariak parte hartu zuten gonbidatutako artista modura. Kontzer-

tu zikloak aurrera jarraituko du datozen hileetan.

Udara arteko egitaraua

Hauek dira Zornotzako Musika Bandaren hurrengo emanaldiak:

• LITERATURAREN DOINUAK

Abenduaren 19an eta 20an eskainiko dute, Zornotza aretoan, 20:15ean. Artista gonbidatuak: Miren Larrea, Patxi Sema eta Unai Aburto narratzaileak izango dira.

• KOLOREEN DOINUAK

Otsailaren 27an eta 28an izango da, Zornotza Aretoan, 20:15ean. Artista

gonbidatuak: Mikel Berrojalbiz brotxa pintorea eta Martzel Nascimento spray pintorea.

• HERRITARREN DOINUAK

Apirilaren 24an eta 25ean izango dira emanaldiak, Zornotza Aretoan, 20:15ean. Artista gonbidatua Blanco y en botella rock talde zornotzarra izango da.

• ZAPOREEN DOINUAK

Maiatzaren 29an izango da, Zornotza Aretoan, 20:15ean. Julen Baz sukaldariak eta Jon Bienzobas-Pagola konpositoreak parte hartuko dute.

• ZAPOREEN DOINUAK

Uztailaren 24an egingo da, 20:30ean. Zelaiaeta parkean egin gura dute, aire librean. Baina puntu hau zehaztu barik dago oraindino. Artista gonbidatuak dantzariak izango dira.

Iurretan Maspetik Bidebarrietarako pasabidea hobetu dute aurrekontu parte hartzaileen eskutik

Zubiaurre kaleko 2. zenbakian, espaloia eta hondakinak biltzeko gunea ere berritu ditu udalak, eta Euskaldun Berria parkean dagoen adinekoentzako gimnasia eremua handitu du

IURRETA • AITZIBE BASAURI

Iurretarren errazago dute orain Maspetik Bidebarrieta kalera oinez igarotzea. Izan ere, udalak kale bi horien arteko pasabidearen irisgarritasuna hobetu du. Era berean, Zubiaurre kaleko 2. zenbakian, espaloia eta hondakinak biltzeko gunea berritu dituzte. 2020ko aurrekontu parte hartzaileen barruan herritarrek hobetsi zituzten proiektuak dira biak. Bestalde, Euskaldun Berria parkean dagoen adinekoentzako gimnasia eremua handitu egin dute, hori ere aurrekontu parte hartzaileetan jasota zegoen proiektua. Guztira, Iurretako Udalak 52.3000 euroko inbertsioa egin du hiru proiektu horiek gauzatzeko.

Euskaldun Berria parkeko gimnasia eremuko lanekin hasi ziren abuztuan, eta urrira bitartean

hiru proiektuak gauzatu dituzte. Otsailean proposamenak jaso eta bideragarritasun teknikoaz aztertu zen, eta, ondoren, parte hartzeko bigarren fasea zabaldu zen interesgarrienak ziren proiektuak hautatzeko. Aurrekontuen parte hartze prozesuko proiektuak aukeratzeko bozketa ekainaren 1etik 14ra egin

52.300 euro inbertitu dituzte herritarrek babestutako hiru proiektuak gauzatzeko

zen. Iurretarren 2020rako lehentasunezko proiektuak aukeratu ahal izan zituzten.

Herritarrek eurek egindako 10 ekarpenen artean, Maspetik Bide-

barrietarako sarbidea hobetzeko proposamenak jaso zuen babesik handiena, 88 botogaz. Zubiaurre 2an espaloia eta hondakinak biltzeko gunea berritzeko proposamenak 69 boto batu zituen, eta Euskaldun Berria parkeko gimnasia eremurako proiektuak 47 boto.

133 galdetegi batu ziren

Iurretarren sare sozialen eta udalaren webgunearen bitartez parte hartu ahal izan zuten. Aurrez aurre bozkatzeko aukera ere izan zuten, Herritarrei Laguntzeko Bulegoan ipinitako postontzian, prozesuan parte hartu duten hainbat dendatiko hautestontzietan eta ekainaren 4an instalatu zen informazio karpn. Parte hartzeko epea amaitu ondoren, 133 galdetegi jaso ziren guztira.



Zubiaurre kaleko hondakinak biltzeko gunea berrituta.



Azkeneko aukerak

IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Mañariko Udalak lehenengoz landu du terrazen gaineko ordenantza eta laster indarrean ipiniko du

Ordenantza berria Ogasun Batzordetik igaro da eta hurrengo udalbatzarrean bozkatzera eta onartzea da helburua



Herriko terrazak plazan daude.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Orain arte ez da tabernetako terrazen gaineko ordenantzarik egon Mañarian, baina laster beteko dute hutsune hori. Udalak terrazen gaineko ordenantza bat landu du. Legeari jarraituz, hamar egunean

publiko egon da proposamena, herritarrek euren ekarpenak egin zitzen eta, epealdi hori amaituta, gaia Ogasun Batzordetik igaro zen eguaztenean. Behin tramite horiek igarota, Mañariko hurrengo udalbatzarrean onartzea da asmoa.

Ordenantza berria izango da, orain arte araututa egon ez den zerbait delako. Herriko taberna batek estalpe bat ipini gura du kanpoko mahaietarako, eta horren gaineko tramiteak egin guran joan zen udaletxera. Horren harira,

egoera guztiak erregularizatuko dituen ordenantza lantzea eta indarrean ipintzea erabaki du udalak.

Terrazetan mahaiak ipini ahal izateko prezioak merkeak izango dira, udal arduradunen esanetan. "Izan ere, asmoa ez da irabaziak lortzea, arautu

Asmoa ez da irabaziak lortzea, egoera erregularizatzea baino, udal arduradunek azaldu dutenez

barik zegoen egoera bat erregularizatzea baino", azaldu dute.

Beraz, ordenantza indarrean ipintzen denetik aurrera, zehaztuta geratuko dira taberna bakoitzak ipiniko dituen mahai eta aulkien kopurua, euren kokalekua, oinezkoentzat libre utzi beharko dituzten pasabideak eta baita zerbitzua eskaini ahal izateko urtero ordaindu beharko den zenbatekoa ere, besteak beste.



Rafa Harategiaren barrualdea.

Etorkizuneko dendaren inguruko ekarpenak jasotzen hasi dira

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Rafa Harategia —Bizkarra harategia lege ezagunagoa— itxi egingo dute hurrengo urteko otsail inguruan, Rafa Bizkarra jabea jubilatuko delako. Herria bat ere dendarik gabe geratu ez dadin, Mañariko Udalak lokalaren jabetza erosi eta kudeaketa esleitu du. Prozesu horren barruan, epealdi bat hasi dute herritarrek etorkizuneko denda horren diseinuan (zer gehituko luketen, zer zerbitzu eskaini beharko litzukeen...) parte hartu dezaten. Horrela, galdetegi bat prestatu dute. Gura duenak eskuragarri du galdetegia udaleko webgunean; baita udaletxean bertan eta liburutegian ere. Ekarpen horiek kontuan hartuko dituzte denda diseinatzerako orduan.

Otxandion zaborren tasa igo eta gainerako denak izoztu dituzte

Zerbitzuaren kostua garestitu delako igo dute zabor tasa

OTXANDIO • J.D.

Joan zen asteko udalbatzarrean, 2021era begirako tasak eta zergak onartu zituzten. Zaborren inguruko tasa %4 igo eta gainerako tasa eta zerga guztiak bere horretan mantendu zituzten.

Otxandion Gorbeialde partzuergotik kudeatzen dute zaborra. Partzuergoak 2021erako aurrekontua atera du eta aurtengoa baino dezent handiagoa da. Arrazoi nagusi bi

daude horretarako. Batetik, Ecoembes enpresak aurtan ez du jasotako materialaren kalitatearen arabera ematen duen hobaririk emango. Bestetik, tamaina handiko zaborraren gestioa ere garestitu egin da. Zerbitzuaren kostua parekatzeko %32 igo beharko litzateke, baina %4 igoko dute (batez beste 3,07 euroko igoera etxebizitzako urteko). Partzuergoak soberakinetatik aterako du gainerakoa.



Jesus Garate, adi-esnearekin egindako Mugarra gaztarekin.

Ardien ustiapen ona saritu diote Izurtzako Mañondori

Euskadiko Abere Ustiapenen XX. Lehiaketan, Garate familiak Izurtzako Ortuzar auzoan gidatzen duten Mañondo ustiapena saritu dute, ardi ustiapenen atalean

IZURTZA • J.D.

Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak, hiru aldundiek eta Neiker-Tecnalia erakundeak antolatzen duten lehiaketan, EAEko 284 ustiapenek parte hartu dute. Ardien ustiapenean egiten duen lanagaitik, Izurtzako Mañondo ustiapenari sari bat eman diote. Besteak beste,

errekurtsoak modu iraunkorrean kudeatzeko ahalegina aintzatetsi dio epaimahaiak. Jesus Garate "pozik" agertu da sariagaz, eta urteetako lanaren "errekotzimendu" lez hartu du. Gaur egun, 580 bat ardi dituzte familia enpresan: 480 latxa eta 120 sasiardi arrazakoak. Mugarra izeneko gazta egiten dute.



Mallabiko pilotalekua.

Aurrerantzean, Mallabiko frontoiko taberna zabalik egongo da astegunetan

MALLABIA • J.D.

Koronabirusa dela-eta, inoiz baino ikastaro eta ekintza gutxiago antolatzen dabilta Mallabiko pilotalekuan. Horregaitik, azpiegiturari bizia emateko, bertako kudeatzailerek erabaki bat hartu dute: joan zen astetik, frontoiko taberna zabalik egongo da astelehenetik barikura, 16:00etatik 21:30era. Orain arte, egun jakin batzuetan baino ez zuten zabaltzen taberna, astegunetan: Biharko Izarrak txapelketako pilota partiduren bat zegoenean, ekintzaren bat antolatzen zenean... Gainera, astean behin, egunetan, pintxo potea egingo dute, 19:00etan.



Azken udalbatzarrean onartu zituzten 2021eko tasak eta zergak.

Anbotoren lagun izan gura duzu?



Orain duzu aukera! Zelan? BFA-ren Aurrera Kultura bonuaren abantailagaz!

Anbotoren
lagun
30€

Anbotoren lagun
**Bizkaia aurrera
kultura** bonuaren
launtzagaz
15€

1

Eskuratu Bizkaia
AurreraKultura bonua
BBK-ko kutxazainean edo
[https://kutxabank-bakb.jan
to.es/eu/comprar](https://kutxabank-bakb.jan
to.es/eu/comprar)
webgunean
15€-an



2

Etorri kultura bonuagaz
Anbotoko bulegora
(Bixente Kapanaga 9
behea, Iurreta) eta egin
zaitez **Anbotoren lagun**

3

Atera etekina Anbotoren
lagun txartelari!
Gozatu abantaila eta
deskontuez



+



* Erosteke azken eguna 2021.05.24/
Erabiltzeko azken eguna 2021.05.31. Bonu
honek urtebeteko iraupena izango du

Bidali mezua: anboto@anboto.org
Deitu: 94 681 65 58
www.anboto.org



Urtebeteko lanaren ondoren, amaitu dituzte Elorrioko Toloto erreka berbideratzeko lanak

Uraren Euskal Agentziak eta Elorrioko Udalak orain hiru urte sinatutako hitzarmen bati eskerrak, Toloto erreka berbideratu eta Buzkantz lursaila atondu dute. 1.608.594 euroko aurrekontua izan dute lan hauek egiteko

ELORRIO • JOSEBA DERTEANO

URAK, Uraren Euskal Agentziak, joan zen barikuan amaitu zituen Toloto erreka berbideratzeko lanak. Udalak eta URAk orain hiru urte sinatu zuten hitzarmena, eta lanak iazko urrian hasi ziren.

Proiektuko helburuen artean, zenbait gunetan uholde arriskuei amaiera ematea eta espazioan zein herritarren mugikortasunean hobekuntzak egitea zeuden. Horrela, aire zabaleko ibilgu bat sortu dute eta oso degradatuta zegoen ibaiaren parte bat naturalizatu egin da.

"Aurreko egoerak uren jarioa zailtzen zuen, eta ahalmen hidrauliko txikiaren ondorioz uholdeak sortzen ziren", azaldu dute udaleko kideek. Trazatu berriagaz, oster, "amaiera eman zaie arazo horiei", eta orain Elorrioko erdiguneak "berdegune berri bat" du.

Gainera, osasun krisiak irauten duen bitartean, eta herritarrek espazioa erabiltzeari eta gozatzeari lehentasuna emateko, Montorra

kalea oinezkoentzat bakarrik izango dela aurreratu dute.

Idoia Buruaga alkateak nabarmendu du proiektu "benetan garrantzitsua" zela elorriarrentzat. "Bizitzen gabiltzan egoera gatz

honetan, asko poztzen nau itxaroten geunden albiste bat emateak; denok gozatu ahal izango dugun espazioa dugu. Herria eraldatu duen obra bat izan da hau, eta ez da bakarria izango, Montorra parkeak eta

Ugarte bideak jarraituko diote eta. Proiektu horiek guztiak amaitzen ditugunean, Elorrioko mugikortasuna, gozatzeko eremuak, eta, azken batean, bizi kalitatea hobetuko dira", amaitu du alkateak.



Toloto erreka berbideratzeko lanak Elorrio eraldatu dute.

Bederatzi hilean, elorriarrek 465 bider erabili dute auzo-taxia

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak jakinarazi duenez, elorriarrek 465 bider erabili dute auzo-taxia 2019ko abendutik 2020ko irailera bitartean; udalak modu positiboan baloratu du hori.

"Auzo-taxia herritarrik gehien eguneroko jarduna errazten duen zerbitzua da. Hori dela-eta, Elorrioko Udalak zerbitzua mantentzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, baina modu zuzen eta ekitatiboan. Zerbitzua elorriar

Elorrioko Udalak auzo-taxia mantentzearen aldeko apustua egiten jarraituko duela azaldu

guztientzat den arren, benetan behar dutenei lagundu gura die, adinekoei, desgaitasuna duten pertsonei eta diru sarrera urriak dituzten familiei", adierazi du Maria Herrero alkateordeak.

Hiri Antolamendurako Plana berritzeko prozesua martxan ipini dute Atxondon

Atxondoko Udalak aho batez onartu du HAPOa berritzea; aurten lizitatu gura dute



HAPOa idaztea lizitaziora atera dute.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken osoko bilkuran, Atxondoko Udalak aho batez onartu zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzeko prozesua martxan ipintzea. Hori horrela, HAPOa idaztea lizitaziora aterako dute datozen egunetan, eta udalaren asmoa aurten bertan lizitatzea izango da. "Badakigu HAPO bat idazteaz berraz egiten denean epeak luzatu egin

HAPOa idazterakoan genero ikuspegia kontuan hartzea gura du Atxondoko Udalak

Alkatearen berbetan, orain arte indarrean egon den planak "ez du lege-galbaherik gainditu"

daitezkeela; gainera, parte-hartze prozesu bat eta genero ikuspegi bat hartu behar ditugu kontuan, eta horregaitik, gure asmoa lehenbailehen ekin ahal izatea da. Orain arte indarrean egon den planak ez du lege-galbaherik gainditu eta jasanezina da. Hamaika urte galdu ditugu eta ezin dugu beste urte bat gehiago ere galdu", azaldu du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak.

Berbalaguni eskerrak, herritarrek aukera dute euskara Interneten bitartez praktikatzeko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Konfinamenduak horrela behartuta, Berrizen Berbalagun online ekimena martxan ipini zuten itxialdian, eta ikasturte berriagaz batera jarraipena eman diote ekimenari. "Euskara konfinatuta geratzerik gura ez genuenez, Internet bidezko zerbitzua martxan ipini genuen", adierazi dute Berbalaguneko kideek.

Hori horrela, berriztarrek, eta baita durangarrek, abadiñarrek, elorriarrek eta iurretarek

Bidelari edo bidelagun izan gura dutenek posta elektronikoz edo telefonoz eman dezakete

ere aukera dute mintzapraktikak etxetik egiteko. Bidelari edo bidelagun izan gura duten herritarrek emanizena.praktika-tu.eus webgunera idatzita edo 639 400 786 telefono zenbakira deituta eman dezakete izena.

Zaldibarko Udalak 15.000 euro ipini ditu aurrekontu parte hartzaileetarako

Zaldibarko Udalak herritarren beharrianak zeintzuk diren ezagutzeko ipini du martxan ekimena. Proposamenak aurkezteko epea azaroaren 30era artekoa izango da.



Zaldibarko Olazar ingurua.

ZALDIBAR • A.M.

Udalak "zaldibartarren lehen-tasunak ezagutzeko helburua-gaz" ipini ditu martxan aurtengo aurrekontu parte hartzaileak. 15.000 euro ipini ditu ekimenerako; herritarrek azaroaren 30aren aurretik aurkeztu beharko dituzte proposamenak. Udalaren berbetan, 3.750 euro baino gehiagoko kostua duten proposamenak baztertu egingo dira. Proposamenen "bideragarritasun teknikoa" aztertu ondoren, abenduaren 14ko saio parte hartzailean eztabaidatuko dute zeintzuk aukeratu. Proposamenak webgunearen bitartez, udaletxeko erregistro-bulegoan edo 94 6827016 telefonora deituta egin ahalko dituzte zaldibartarrek.

"Urte bian, ia erdira"

EH Bilduk salatu du aurrekontu parte hartzaileetarako ipinitako diru kopurua ia erdira jaitsi dela urte bian, 25.000 eurotik 15.000 eurora. Horrez gainera, EAJk eta PSEk "batzar parte hartzaile" bakarra egitea erabaki izana ere kritikatu du.



Abadiño.

Marihuana kargamentua atzeman dute Abadiñon

Ertzaintzak Italiatik zetorren marihuana kargamentua atzeman du Abadiñon, 15 kiloko bost kutxagaz

ABADIÑO • A.M.

Ertzaintzak Italiatik zetorren marihuana kargamentua atzeman du aste honetan. 45 urteko gizonezko bat ikertzen dabilta, droga trafikoagaz lotura izan dezakeelakoan. Segurtasun Sailetik azaldutakoaren arabera, ikerketa Trapagarango (Bizkaia) industrialde batean hasi zen, "in-

dustrialdean aparkatuta zegoen kamioi batetik marihuana usain izugarriak irteten zuela" ikusita. 45 urteko gizonezkoa kutxak kamioitik auto batera lekualdatzen zebilela harrapatu zuten, Abadiñon. Kamioi gidaria ere identifikatu zuten arren, Ertzaintzaren ustez ez zuen zerikusirik "ekintza ilegalagaz".

Gure bi indargune nagusiek aurrera jarraitzen dute, COVID19a gure artean izan arren



ELORRIO
LOURDESKO AMA IKASTETXEA

PROIEKTUAK

Proiektuetan lan egiten jarraitzen dugu. Oraingoz, presentzialki; nahiz eta online egiteko ere prest gauden. Diziplinarteko proiektuak eramaten ditugu aurrera, hainbat jarduera erabiliz; pentsamendua, talde lana eta ebaluazioarekin zuzenean lotutako metodologiak erabiltzen ditugu. Honekin, ikasle guztien premiei eta interesiei erantzuten diegula jabetu gara. Hauek aurrera eramateko, hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzea ezinbestekoa da (familiak, herria, elkarteak...).



Tel.: 946 820 056
www.lourdeskoama.eus

TXOKO BERDEA

Aurten, Lehen Hezkuntzako ikasleek gain, Txoko Berdean DBHko bi talde ere sartu dira. Neurri bereziak hartu arren, gure umeez inguruneaz eta animaliez gozatzen jarraitzen dute. Proiektu honi esker, ikasleek naturarekiko sentsibilizazioa garatzen dute, ingurune naturalaren gainera interesa eta jakin-mina pizten zaizkie, tradizio eta ohiturak bereganatzen dituzte eta ikerketaren eta esperimentazioaren bitartez, curriculumeko hainbat konpetentzia lantzen dituzte.



Mallabiko frontoia obretan, 2007an. ANBOTO.

Hareek denporak!

13 urte pasatu dira Mallabiko frontoia inauguratu zutela

Frontoi zaharra eraberritu eta gero, inaugurazioa egin zuten 2007ko azaroaren 17an. Urte eta erdian egon ziren frontoiko ateak itxita. Aurreko frontoia leku bera erabiltzen zuen ekin-tza guztietarako. Obrak egin eta gero, kantxa eta idi probetarako zorua aparte daude. Eraikin berria behar zen moduan inauguratzeko, egitarau oparoa prestatu zuten. Pilota

partiduak eta kultur ekitaldiak antolatu zituzten. Tartean, Kukai dantza taldeak *Otheitzari biraka* ikuskizuna taularatu zuen. Nabarmendu daitekeen beste ekitaldi bat Perurena aita-semeek eskainitako harri-jasotzaileen erakustaldia izan zen. Binakako Urrezko Aizkolari Txapelketako tarte batean parte hartu zuten perurenatarrek Mallabian.

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE



Gazteak eta jokoak

Euskal Autonomia Erkidegoan 205 joko areto eta 34 apustu-lokal daude. Jokoaren erreglamentu orokorra eguneratzen dabilta eta hau eginda egon arte, joko areto berriak zabaltzeko baimenak ez zirela emango esan zuten. Aukera ezin hobea da araudia gogortzeko eta beharrezkoa da lege horretan joko areto eta eskola artean egon beharko den distantzia gutxienekoa markatzea.

Estatuan, Errege Dekretuaren neurri nagusiak debekatu egiten du online jokoaren publizitatea euskarri eta hedabide guztietan 00:00etatik 05:00etara bitarteko ordutegian izan ezik. Baita kamiseta edo kirol-ekipamenduetan online apustuen publizitatea agertzea eta iragarkietan pertsonaia ospetsuak erakargarri gisa erabiltzea ere.

Legearen arabera, 18 urtetik beherakoentzat debekatuta dago apustu jokoetan ibiltzea, baina errealitatea beste bat da. Normalizatuta dute kirol-apustuen mundua eta aisialdirako ohitura bilakatzen ari da askorentzat. Erraza dute mugikorretatik edo ordenagailuetatik aritzea eta baita joko-areto edo tabernetako makinetatik apustua egitea ere.

Euskadin 43.000 pertsona ludopata dago, ludopatia substantzia gabeko adikzio bezala onartuta dago. Kopuru horretan gazteak gero eta gehiago dira eta adikzio horri aurre egin ezinagatik laguntza eske daude gaur egun.

Ondorioak? Larriak dira, lana edo erlazio pertsonalen galera, esaterako.

Gainera, krisi garaian frogatuta dago etsipenaren ondorioz errazagoa dela apustu sareetan erortzea. Apustu arriskutsua benetan, adi egon!

Durungaldea asteen

Maristak ikastetxeko irakasleek hackathon-ean parte hartuko dute

Durango I Lanbide Heziketako irakasleek COVID-19ari aurre egiteko hackaton-ean parte hartuko dute. Irtenbide praktiko eta berritzaileak aurkitzea da asmoa. Estatuko lau ikastetxek parte hartuko dute, tartean Durangoko Maristak ikastetxeak. Diziplinarteko taldeak sortuko dituzte. Ekimena azaroaren 12an, 13an eta 14an garatuko dute.

Elorrioko Udalak aurrekontu parte hartzaileak atzeratuko ditu

Elorrio I Bizkaiko Foru Aldunditik datozen diru sarreraren murrizketen ondorioz, udalak aurrekontu parte hartzaileak atzeratuko ditu. Udalak 1.249.304 euro gutxiago jasoko ditu guztira. Udalkutxatik, esaterako, 605.000 euro gutxiago jaso dituztela azaldu dute. Beraz, osasun krisiak eragina izango du udalaren aurrekontuetan.

Zaldibar Argituk ekarretaratzeraz deitu du lur-jausia gertatu zenetik 9 hilabetera

Zaldibar I Otsailaren 6an lur-jausia gertatu zen Zaldibarko Verter Recycling zabortearen. Lur-jausian, behargin bi harrapatuta geratu ziren. Alberto Sololuze langilearen gorpua aurkitu zuten, baina Joaquin Beltranen bila dabilta oraindino. Lur-jausia gertatu zenetik, Zaldibar Argitu plataformak erantzukizunak eskatu ditu eta hainbat mobilizaziotara deitu du. Azaroaren 7rako elkarretartzera deitu du, 13:00etan, plazan.



Berbarok Hirukoa lehiaketaren bigarren edizioa antolatuko du azaroko hiru astetarako

Durango I Hiru laguneko taldetan parte hartuko da lehiaketan, eta partaideek hamabost galderari erantzun beharko diete astero. Deneriko galderak egongo dira: kultura, historia, Durangoko gaurkotasuna, abestiak emotikoen bitartez asmatzea... Datorren astelehenean, azaroaren 9an, ekingo diote lehiaketari, eta galdetegiak *berbaro.eus* eta elkartearen sare sozialen bitartez zabalduko dituzte. Hiru asteetan punturik gehien lortzen duen taldeak eta, hortaz, sailkapenean lehenengo gelditzen denak Errigorako saski bat irabaziko du. Lehenengo edizioan hogeita bost hirukotek parte hartu zuten eta saltsatxoa sortu zuen lehiaketak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Jaso
liburuak
zure etxean!

Eskararak WhatsApp-ez eskatu
686 214 964

bizum -ez ordaindu



**Seguros
Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 • Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com


BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85




ESKULANA



ITSASONTZIA KORTXOEKIN

Materiala:


- Kortxoak (3)
- Zotzak brotxetetarako
- Koloretako goma-eva
- Kordela
- Artaziak
- Silikona pistola



Lotu 3 kortxoak kordelagaz.
Itsatsi silikonagaz, errefortzu moduan.
Ikusi adibidea irudian.



Ebaki hiru irudiak gurago duzun
koloretako goma-evagaz.
Trapezio bat, (itsasontziaren bela
izango dena), arrain bat eta bandera.



Sartu belan brotxetetarako zotza
eta itsatsi bela irudian ikusten
duzun moduan. Sartu punta kortxo
barruan eta ikusi uretan ea
flotatzen duen.

LEKUZ KANPO

Beheko irudietatik zeintzuk topatu daitezke logela batean?



ZENBATU

Zenbat etxebizitza daude beheko irudian?
Gai izango zara dauden katuak topatzeko?





SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.



TXIKITIK HANDIRA


Beheko irudian ordenatu etxebizitzak txikitik handira.



TOPATU ITZATZU

Topatu hamar objektu hauek beheko irudian.





DIFERENTZIAK

Topatu hamar diferentziak.



ITZALAK

Madalena bakoitzari bere gerizpea dagokio.



ESAERA ZAHARRA

Ordenatu hitzak eta idatzi esaera zaharra beheko lerroan.

argitu

iluna

Abenduko

orduko

eguna,

.....

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera

Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak





Reunion Big Band

KONTZERTUAK **DURANGO :: Azaroak 7**

Musikeneko 17 musikari gazte Platerueneko oholtza gaineratik

Europako hainbat tokitatik etorritako 17 musikari gazte osatzen duten jazz bandak eskainiko du kontzertua, zapatuan, Plateruena kafe antzokian. Reunion Big Band 2011n jaio zen; Musikeneko ikasle eta ikasle ohiak dira guztiak.

Urte hauetan guztietan, hainbat estilo jorratu dituen taldea da

Reunion Big Band: swing tradizionalenetik hasita gaur egungo jazz joera berrienetara, musika latino eta funk-a ahaztu barik. Erreperitorioaren zati handi bat taldeki-deek eurek sortutako piezek eta eurek egindako moldaketa originalek osatzen dute. Azaroaren 7an joko dute, 20:00etan.

Azaroaren 6an eta 7an

ELORRIO lehiaketa
‘24 Ordu’ Elorrioko Film Laburren Lehiaketa.

Azaroaren 6an, 17:00etan, antolatzaileek gaia proposatuko dute, eta parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte euren proposamenak aurkezteko. Azaroaren 7an, film laburren emanaldiak, 20:00etan. Izena emateko: 24ordu@arriolaka.com.

Azaroaren 6an

BERRIZ antzerkia
‘Kotondarrak’ (Anita Maravillas), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika
Organo eta ganbera kontzertua: Jesus Martín Moroko, 20:15ean, Andra Mariko basilikan. Donibane Lohitzuneko organista eta Pauko kontserbatorioko irakaslea den Morok koronabirusaren biktimak omentzeko kontzertuan parte hartuko du. Arandoño kultur elkarteak antolatuko du.

DURANGO hitzaldia
Durango Krimenaren Historiaren Zentroaren Nazioarteko XVIII. mahai-ingurua: ‘Barkamena, indultua eta amnistia historian zehar’. Interesa dutenek eta sarean ikusi gura dutenek honako posta elektronikoaren bitartez eman dezakete izena: museo@durango.eus.

DURANGO musika
Kontzertua: Petti, 21:00etan, Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO dantza
‘Burdina’ (Adriana Bilbao eta Beñat Achiary), 20:30ean, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
‘Espacio disponible’ (Perigallo Konpainia), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 7an

ABADIÑO musika
Durango Orfeoia, 20:00etan, San Trokaz elizan. J Hydn-en Nelson Meza eskainiko du.

BERRIZ dantza
‘Burdina’ (Adriana Bilbao eta Beñat Achiary), 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘Espacio disponible’ (Perigallo Konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO musika
Berriotxo abesbatza, 20:00etan, Sortzez Garbiaren basilikan.

Azaroaren 8an

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

DURANGO musika
Durango Orfeoia, 20:00etan, Andra Maria basilikan. J Hydn-en Nelson Meza eskainiko du.

Azaroaren 10ean

ZORNOTZA zinekluba
‘Un acuerdo original’, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 11an

ABADIÑO dokumentala
‘Florecica: Josefina Lamberto’ 18:00etan, Txaporta kultur etxean. Ondoren, solasaldia egongo da.

Azaroaren 13an

DURANGO musika
Kontzertua: Maite Larburu, 21:00etan, Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO musika
Arriolako XXXI. Jazz Blues Jaialdia: Juanma Urriza Quartet, 20:30ean, Arriola antzokian.

ZORNOTZA musika
Gauero+: Eztandap, 20:15ean, Zelaieta zentroan.

Azaroaren 14an

BERRIZ antzerkia
‘Fadoak entzuten zituen gizona’ (Xake Produksioak), 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO aurkezpena
‘El otoño del pianista Bartolomé Ertzilla’, musika emanaldia, 18:30ean, San Frantsisko elizan. Izen bereko KDa aurkeztuko dute.

DURANGO antzerkia
‘Karrikan’ (Karrika antzerki taldea), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO musika
Arriolako XXXI. Jazz Blues Jaialdia: Tonky & Naco Blues Band, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
‘Musikarium’, 18:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 3a bitartean

ELORRIO lehiaketa
Orri markagailuen lehiaketan izena emateko epea zabalik dago, abenduaren 3a bitartean. Lehiaketan 12tik 18 urtera bitarteko gazte elorriarrek parte hartu ahal izango dute, erroldatuta badaude edo udalerrian ikasten badute.

Zinema

:: Berriz . KULTUR ETXEA

• **Falling**

barikua 6: 20:00.

domeka 8: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Erlauntza**

barikua 6: 18:45

zapatua 7: 18:15

domeka 8: 18:15

astelehena 9: 18:00

eguaztena 11: 19:00

• **Enjambre**

barikua 6: 21:00

zapatua 7: 20:30

domeka 8: 20:30

astelehena 9: 20:15

martitzena 10: 19:30

• **Adam**

barikua 6: 18:45/21:00

zapatua 7: 18:15/20:30

domeka 8: 18:15/20:30

astelehena 9: 18:00/20:15

martitzena 10: 19:30

eguaztena 11: 19:00

• **Sentimental**

barikua 6: 18:45/21:00

zapatua 7: 18:15/20:30

domeka 8: 18:15/20:30

astelehena 9: 18:00/20:15

martitzena 10: 19:30

eguaztena 11: 19:00

• **Trolls2: Gira mundial**

zapatua 7: 16:00

domeka 8: 18:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Temblores**

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:00

• **%100 Wolf: Pequeño**

gran lobo

domeka 8: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Anne**

zapatua 7: 20:00

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:15

• **Txakurrak eta katua**

bezala: patrula bateratua

zapatua 7: 17:00

domeka 8: 17:00



ONLINE ERE BAI

Zure ordenagailu, tablet edo telefonotik
beste euskaldun batzuekin hitz egiteko
mintzapraktika taldeak.

DOHAINIK DA!

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:
www.praktikatu.eus



639 400 786

www.durangaldea.blogspot.com
durangaldea@aek.eus



Sustatzaileak

Babesleak



Mancomunidad de la Merindad de Durango



Bizkaia

praktikatu



“Hamar edo hogeit hamar urte barru ikusiko da euskarazko hip hopean orain egiten ari den lan guztiaren emaitza”

Peiok eta Itsuak 'Jostailua eta harria' aurkeztuko dute abenduaren 8an, zuzenean, 13:20an; Ahotsenean izango da kontzertua, Durangoko Azokan



Peio Azkarate eta Arkaitz Cayado 'Itsua'.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Peio eta Itsua durangarrek 'Jostailua eta harria' hip hop diskoa kaleratu dute. Zazpi abestitan euren ezinegon musikal zein lirikoak kaleratu dituzte, euskara hutsean [Gunflow-k wolofera hizkuntzan kolaboratzen du abestietariko batean]. QR bidez deskargatu dai-teke, orrialde honetan bertan.

Nondik dator zuen elkarlan hau? Ez zarete belaunaldi berekoak.

Arkaitz Cayado 'Itsua': Peioren aita-gaz jazz kontzertuetan-eta elkartu izan naiz, eta bere bitartez ezagu-

“**Metxeroekin entzuleen eskura uzten dugu diskoaren zabalkundea, eskutik eskura ibiltzeko aukera eskaintzen du eta**”

tu dut Peio. Semeak rapeatu egiten zuela esan zidan, eta entsegu bate-ra etortzeko esan nion. Hasieran, beldur apur bat ematen zidan, 90eko hamarkadako delako nire estiloa, eta gaur egungo rapa ez zait larregi gustatzen, ez musika aldetik ez mezu aldetik. Baina entsegura etorri eta harritu egin ninduen. Repeatzen hasi zenean, bazuela mamia ikusi nuen. Orain urtebete baino gutxiago izan zen hori.

Peio Azkarate: Orain urte askotik enzuten dut rapa, baina 'Itsua'-gaz abaniko musikal handia jaso dut, eta hip hop bizitza ulertzen ere lagundu dit.

A.C.: Peio itzela da, duen estiloagaitik, hizkuntza ondo dakielako, eta transmititzeko duen gaitasunagaitik. Hogeit hamar urte daramatzat rapean, eta zerbait desberdina egiten duela uste dut.

Hip Hopa euskara hutsean. Ez da ohikoa. Jauzi hori egin dela uste duzue?

P.A.: Egiten ari dela esango nuke. Hor daude Xatiro, Ziakus... badago jende bat hor, urte batzuk barru gogoratuko duguna.

“**Gaur egun, mugikorretik entzuten da musika gehienbat, baina uste dugu lehenengo lana fisikoan aterara behar dela**”

A.C.: Nik uste dut hamar edo hogeit hamar urte barru ikusiko dela euskarazko hip hopean gaur egun egiten ari denaren emaitza.

Zelan moldatzen zarete lanerako?

A.C.: Hip Hoparen ezaugarrietariko bat da bakarka lan egiteko aukera ematen duela, eta nik gustuko dut gauzak nire kontura lantzea.

P.A.: Nik beharrezkoak ditut kaleko giroa eta bizipenak. Baina, gero, bakardadean garatzen ditut ideia horiek. Sorginolan grabatu izan ditut gero ahotsak, bakarrik zein lagunen bategaz, eta zirriborro horiek 'Itsua'-ri bidali izan dizkiot.

A.C.: Teknologiari eskerrak, bakoitzak bere kabuz lan egitea errazagoa da gaur egun. Hala ere, beharrezkoa ikusten dut lokal bat edukitzea hori guztia gero partekatze, funtzionatzen duen ikusteko, edo abestiak sortzeko. Orain pandemia egoerak hori guztia aldatu duen arren.



Diskoaren diseinua ez da ohikoa. Txiskero formatuan kaleratu duzue. Zergaitik?

A.C.: Beat Saladen lan gehiago KDan gehiago ez ateratzea erabaki genuen. Nire azken lan biak, adibidez, bata biniloan eta bestea postal batean kaleratu genituen. Gaur egun, mugikorretik entzuten da musika gehienbat, baina uste dugu lehenengo lana euskarri fisikoan aterara behar dela. Nire kasuan, biniloan entzuten dut musika, batez ere. Urteak dira KD bat erabiltzen ez dudala.

P.A.: Biniloan kaleratzea garestia da. Buruari bueltak ematen egon ginen, ea zein izango zen gehien zabalduko zen aukera. Metxeroekin, entzuleen eskura uzten dugu gainera, diskoaren zabalkundea eskutik eskura ibiliko da eta. Entzulearen parte-hartzea aktiboagoa izango da, beraz. Azken finean, gure lana zabaltzea da gure helburua. Honetatik dirua ateratzea utopia bat da.

Baduzue beste proiekturik esku artetan?

A.C.: Oso proiektu potente batean gaude sartuta, Ein2ogu kolektiboagaz. 7 hazbeteko disko biniloa kaleratuko dugu, abesti bikoa. Ekoizle bik eta sei MCK parte hartuko dugu; Bilboko, Gasteizko eta Durangoko jendea gaude, eta euskaraz, woloferaz eta gaztelaniaz abestuko dugu; nahaste interesgarria gertatuko da. 2020an musika egiten eta egurra ematen jarraituko dugu.

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

liburubila

**Bibliotekako bazkide izanez gero, Liburubilaren bitartez:
Katalogoa kontsultatu, mailegu eskaerak egin, liburu
elektronikoak eskuratu, pelikulak ikusi etab.**

Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

Tlf.: 946 812 726 • biblioteka@iurreta.eus

Reunion Big Band-egaz hasiko da Musika Hamabostaldia

XXXI. Musika Hamabostaldia zapatuan hasiko da, Musikeneko jazz ikasleen Big Band-en kontzertuagaz

MUSIKA • A.M.

Hiru kontzertuk osatuko dute Durangoko Musika Hamabostaldiaren XXXI. edizioa. Lehenengo kontzertua zapatuan izango da, azaroak 7. Musikeneko jazz ikasleek osaturiko Big Band-ek

kontzertua eskainiko du Plateruean; 20:00etan hasiko da.

Azaroaren 21ean Donostiako Orfeoi Gazteak kontzertua eskainiko du Andra Maria elizan. 20:15ean hasiko da kontzertu hori. Hamabostaldia ixteko, Oiasso Cameratak kontzertua eskainiko du San Agustin kulturgunean. Ganbera Orkestra honek *Con aire de tango* ikuskizuna eskainiko du Marina Beheretche biolinistagaz batera; azaroaren 28an izango da.

Jazz kontzertua
20:00etan hasiko da;
sarrerak Durangoko
museoan erreserbatu
behar dira



Hamabostaldiaren aurkezpena.



'Kotondarrak'. Txelu Angoitia.

“Publikoak hunkituta esaten digu kontatu beharreko istorio bat zela”

Anita Maravillas konpainiak 'Kotondarrak' bere azken antzezlanaren aurkeztuko du gaur, azaroak 6, 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean; urrian estreinatu zen

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Anita Maravillas taldearen proposamen berriak industrializazio sasoiraren darama ikuslea, ehungintzako protestetara. Miren Larrea antzezlaneko zuzendariagaz berba egin du ANBOTOK.

Nortzuk dira kotondarrak?

Kotondarrak ama bat eta alaba bi dira. Landa eremutik hirirako bidaia egiten duen familietariko bat dira. Ahizpa biren begiradatik egiten dugu kontaketa. Arrisku batetik ihes dabilatzala, beste zenbait arrisku eta abentura topatuko dituzte hirietan.

Estreinaldiak harrera ona izan du?

Oso ona. Aforo kontuengaitik, hiru emanaldi egin genituen egun bitan. Beti da hunkigarria herrian estreinatzea, eta kasu honetan gehiago. Jendearen berotasuna jaso dugu, eta esaten digutenaren arabera hunkituta irtetzen dute, eta kontatu beharreko istorio bat zela esaten digute.

Zer nobedade dakartza proiektuak?

Orain urte bi ekin genion proiektu honi, eta gure erronka nagusia lan arlo guztietan pauso bat gehiago ematea izan da, ideien aldetik, eraikitze aldetik, eta baita estetika edo manipulazio aldetik ere.

Beste kide bat sartu da, gainera, panpinak manipulatzeko, Maren Basterretxea.


Zelakoa izan da itzulera oholzetara?

Ez nuen uste hain hunkigarria izango zenik. Guk asko disfrutatzen dugu sortze prozesuan, murgildu egiten gara, eta ez genuen itzulera horretan hainbeste pentsatu. Gero konturatu gara publikoagaz egoteko beharrez gurea. Segurtasun neurriekin izaera kolektiboa mantentzen duten esperientziak izaten jarraitzen dute antzezlanek, eta, horregaitik, inoiz baino iraultzaileagoa da antzerkira joatea.

Gai librean

Hautzaro analogikoa

Azkenaldian denborari buruz hausnartzen ari naiz. 80ko hamarkadan jaioak garenok hautzaro analogiko bat izan dugun azkenak izan gara. Gaztaro digitalean sartu ginen, baina gutxienez txikitik ez genuen inoiz entzun internet, mugikor, sare sozial eta halako hitzik. Eta honek denbora beste era batera ulertzea ekarri digu. Izan ere, gure hautzaroan denbora astiroago zihoan. Itxaroten ikasi behar izan genuen, derrigorrez. Telesailak astean behin egiten ziren, bitartean hurrengo atala ikusteko aste bat itxaron behar genuen edo egun bat Dragoi Bolaren atalak ikusteko. Argazkiak ateratzen genituen eta errebelatzaera eramaten genituen egunak ere itxaron behar izaten genituen (batzuetan azkarrago



Garazi
Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa

Gure hautzaroan denbora astiroago zihoan. Itxaroten ikasi behar izan genuen, derrigorrez

Zer egingo zuten gaur egungo haurrek gure hautzaro analogikora bueltatuko balira?

egiteko aukera ere izaten genuen, baina kalitatea ez zen hain ona). Horren lekuko ditut Berri Txarrak eta Hyssopus taldeen kontzertuen argazkiak Berrizko probalekuan. Gure arteko komunikazioa ere desberdina zen. Lauretan BBKn esan, eta han agertzen zena taldera

batzen zen, bestela kale. Whatsapp ez izatearen ondorioak. Eta etxeko finkoa! Hori bai oroitzapena. Gustuko genuen neskaren edo mutilaren etxera kaleko kabinetatik deitzen genuenean, 25 pezetako txanpon batekin. Haren “Bai?” entzun eta telefonoa eskegitzen genuen (gurasoak erantzuten ez bazuen, noski).

Orain denbora azkarrago doa, eta nire semeengan ikusten dut ez dakitela itxaroten. Dena dute momentuan bertan. Norbaitekin hitz egin nahi eta whatsapp bidali, zerbait erosi nahi eta Amazonera jo, telesail bat ikusi nahi eta milaka plataforma eskura momentuan bertan ikusteko. Zer egingo zuten gaur egungo haurrek gure hautzaro analogikora bueltatuko balira? Hori bai, nik argi daukat, harro nago modu analogikoan hazi zen azken belaunaldikoa izateaz.

“Zergaitik ez itxaron proben emaitzei? Horiek dira ulertzen ez ditugun erabakiak”

Euskadiko Federazioak PCR probak hamabost egunean behin egiteko baliabideak eskainiko dizkie Hirugarren Mailako taldeei areto futboleko; hurrengo astean egin ahalko dituzte lehenengo probak, ligako jardunaldi bi joanda daudenean



Unai Arregi Mañarikua
Elorrioko Buskantza-
Parra taberna taldeko
jokalaria
Elorrio | 1996

rrik gastatu gura. Federaziora deitu eta konfirmatu ziguten baietz, erdi profesionalak ginela eta liga hastekoa zela. Baina zertan gara erdi-profesionalak? Sarritan geure poltsikotik ipini behar dugu dirua eta. Taldeko whatsapp taldean makina bat komentario egon ziren horren inguruan.

PCR edo bere antzeko probarik egiten duzue?

Areto-futboleko jokalarien elkar-
teak egindako presioari eskerrak,
Euskadiko Federazioak hamabost
egunean behin probak egiteko ba-
liabideak emango dizkigu. Jokala-
rientzat baino ez dira. Entrenatzai-
leak eta delegatuak, esaterako, ez
dira sartzen. Beraz, guk denontzat
erosiko ditugu probak, eta, gainera,
astean behin egiteko asmoa dugu.
Ahalik eta segurtasunik handiena
bermatzeko.

**Gaur egungo egoera ikusita, liga
hastearen aldekoak zarete?**

Bizi dugun egoera ikusita, liga
geldirik balego ez litzateke ezer
gertatuko. Baina hasita dago eta gu
ez gaude jokatzearren kontra. Gura
duguna da segurtasun neurriak
zorrotz zaintzea eta logika baten
barruan eramatea. Adibide bat
ipiniko dut: datorren astean egin
ahalko ditugu hamabost egunean
behin egin beharreko probak, lehe-

nengokoak, baina liga hasita dago
dagoeneko. Zergaitik ez itxaron
proba guztietako emaitzak jakin
arte? Horiek dira ulertzen ez ditu-
gun erabakiak.

**Probak egiten dituzuenarako jardun-
aldi bi jokatura egongo dira.**

Bai. Joan zen asteburuan Pasaian
jokatu genuen, intzidentzia tasagaitik
eremu gorrian sartuta zegoen
herri batean. Orduan, Elorrio ere
eremu laranjan zegoen, eremu go-
rritik irten berri.

**Zuen ardura helarazi duzue federa-
ziora?**

Bai, eta diote izena eman dugun
unetik geuk erabaki dugula joka-
tzea. Errepikatu genien ez geunde-
la jokatzearren kontra, segurtasuna
zorrotz eramatearen alde baino.
Joan ezik, isuna handia izango zela
esan ziguten. Beraz, Pasaiaiko parti-
duari logikarik ikusten ez genion
arren, jokatzera joan ginen.

Zelan joan zen partidua?

Bost jokalaria baino ez ginen joan,
atezainik barik. Imajinatu. 8-2
galdu, arratsaldea eman eta etxera
buelta. Hala ere, nahikoa egin ge-
nuen, 16. minutura arte 1-2 irabaz-
ten joan ginen eta.

**Zergaitik joan zineten hain jokalaria
gutxi?**

Batzuk leisonatuta daude. Beste bik
erabaki dute oraingoz ez jokatzea,

bizi dugun egoera zein den ikusita
eta euren negozioak edo inguru-
koenak ez kaltetzeko. Erabaki guz-
tiz ulergarriak eta errespetagarriak
dira.

**Zelan dago taldea? Aldaketa asko
daude aurten?**

Sasikoa taldetik Eloy Azpiri fitxatu
dugu eta Aurrera Vitoriatik Mikel
Aguado etorri da. Biak berriztarrak
dira. Bigarren taldetik hiru jokalaria
igo dira: Josu Egidazu eta Iñigo
Diaz elorriarrak eta Iraitz Arkara-
zo atxondarra. Azkenik, Markel
Arruabarrena ere batu da taldera.
Orain arte futboleko aritu da. B
taldeagaz du fitxa, baina gugaz
entrenatzen dabil, edozein unetan
igotzeko prest egoteko.

“
**Zertan gara erdi
profesionalak?
Sarritan geure
poltsikotik ipini behar
izaten dugu dirua eta”**
—

**Denboraldi berezi eta zoro honetan,
posible da helburuak ipintzea?**

Ez da erraza. Batek daki zein egoe-
ratan egongo garen aste bi barru.
Edo baten batek positibo ematen
badu. Guk segurtasun neurriak
betetzen jarraituko dugu: tenpe-
ratura hartzen, entrenamenduen
ostean material guztia desinfek-
tatzen... Hori guztia alde batera
utzita, azken urteetako talderik
konpletoena dugula esango nuke.

ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
**Elorrioko Parra taberna eta Sasi-
koa taldeek areto futboleko ligak
hasi dituzte, talde erdi profesional
moduan izendatuta daudelako. Talde erdi profesionalak? Irakurlea
bezain harrituta geratu ziren eurak.**


**Zuek bazenekiten talde erdi profe-
sional moduan sailkatuta zaudetela?**
Ez, ez genekien. Gure fitxetan afi-
zionatuak garela ipintzen du eta
horixe ginela uste genuen. Guztiz
seguru egon arte ez genuen fitxarik
tramitatu, ez genuen-eta dirua alfe-

Jokaldia

**Ariketa fisikoa egitean ere,
prebentzioaz jokatu**

Azkenaldian, batez ere pandemia
garaian, atentzioa eman dit gizar-
tean jarduera fisikoa egiteko sortu den go-
go eta beharrak. Ulertzekoa da hain-
beste denbora etxean sartuta egon eta
gero denok izan dugula mugitzeko
eta ariketa egiteko beharrezana. Argi
dago kirola egitea osasuntsua dela, eta
uste dut denok praktikatu beharko
genukeela egunerokotasunean. Baina
beharrezkoa da modu egoki eta segu-
ruan egitea.

Gero eta gehiago ikusten da You-
tuben, Instagramen eta antzeko sare
sozialetan jendeak igotzen dituen spin-
ning, gimnasio eta yoga saioak, eta
gero eta ikusle gehiago dituzte. Egia da
oso komodoa dela modu horretan ari-



June Arbo Sarriugarte
Korrikalaria

**"Gero eta gehiago ikusten
dira sare sozialetan jendeak
igotzen dituen spinning,
gimnasia eta yoga saioak"**

**"Ikusten diren mezuak ez
dira egokienak, fisikoan
eta pisua galtzen baino ez
direlako zentratzen"**

keta fisikoa egitea. Etxetik mugitu gabe
eta nahi duzun orduan. Baina kirolaria
eta jarduera fisiko eta kirol zientzietako
graduak ikaslea izanik, uste dut kontuz
ibili behar dela honekin.

Batetik, saioa ematen duen pertsona
askotan ez delako arlo horretan aditua.
Eramango zenukete autoa mekanikaria

ez den norbaitengana konpon dezan?
Bada, arlo honetan ere badaude adituak.
Bestetik, pertsona guztiak ez gara berdi-
nak, ez dugu berdina funtzionatzen eta
ezin dugu ariketa intentsitate edo modu
berean egin; egokia eta komenigarria
litzateke ariketa gure beharrezanetara
egokitzea. Azkenik, bideo askotan ikus-
ten diren mezuak ez dira egokienak, fi-
sikoan eta pisua galtzean baino ez direla-
ko zentratzen. Kirola egitea osasuntsua
da, baina ez zait egokia iruditzen kiloak
galtzeko mezu orokorrak ematea. Go-
goan izan behar dugu bideoa grabatzen
ari denak ez dakiela ikuslea nor den, zer
behar duen.

Honekin ez diot ezin dela modu ho-
netan ariketa fisikoa egin, baina kontuz
eta kontuan izanik norberak zehaztu
behar duela beti bere beharrezanek, mu-
gak eta helburuak zeintzuk diren.

Nork bere kontura egiteko San Silvestre lasterketa antolatu dute Durangon, eta batutako dirua Geu Be-ri emango diote

Izena eman eta gero, aplikazio bat jaitsi daiteke denborak interneten erregistratzeko

KORRIKA • JOSEBA DERTEANO
San Silvestre lasterketak tradizioa dira herri askotan, eta COVID 19-ak ez du ohitura hori apurtuko, Durangon behinik behin. Kirolerrotak Kirol Klubak alternatiba bat topatu du: nork bere kontura, bakarka, egin dezakeen lasterketa.
Izen-emateagaz batutako dirua Geu Be elkarteari emango diote. "Denbora gogorak izaten ari dira

Abenduaren 23tik 31ra bost kilometroko bidea osatu behar da, bakoitzak gura duen ibilbidean

denontzat. Esaterako, aurten ez da jairik ospatu Durangon, eta Geu Be elkarteak txosna bat ipini ohi du sanfaustoetan. Beraz, diru iturri hori barik geratu dira. Horregatik, batutako dirua eurei ematea pentsatu genuen, modu ona izan zitekeelako proiektuari laguntzeko", azaldu du Kirolerrotak klubeko Juanjo Fondadok.
Izen-ematea sei euro da eta www.kirolprobak.com webgunearen bitartez egin daiteke, abenduaren 22ra arte. Honako hau da denborak ofizialki erregistratzeko sistema: webgunetik aplikazio bat jaitsi daiteke; ondoren, abenduaren 23tik 31ra bitartean, bost kilometro egin behar dira bakoitzak gura duen ibilbidean

eta unean. Korrika edo oinez egin daitezke, hori bakoitzaren erabakia da. Bost kilometro osatzen diren unean, denbora hori erregistratuta

Erregistratutako denborekin sailkapen bat osatu eta publiko egingo dute webgunean

geratuko da. Ondoren, jasotako denborekin sailkapena osatu eta publiko egingo dute izen-ematea egiten den webgune berean. Aurten ez da saririk egongo parte-hartzaileentzat.



Kirolerrotak Kirol Klubak antolatuko du ekimena.

Amorebieta bigarren eta Durangoko Kulturala lider

Bigarren B Mailako eta Hirugarren Mailako sailkapenetan, eskualdeko talde biak protagonista dira liga hasiera honetan

FUTBOLA • J.D.
Eskualdeko futbol talde nagusi biek emaitza bolada onari eusten diote eta sailkapenaren goialdean daude. Amorebieta bigarren tokian kokatuta dago, Racing taldearen atzetik. Joan zen asteburuan hiru puntuak batu zituen etxean, Barakaldo 2-0 menderatuta. Iñigo Velezek gidatutako taldeak ez daki galtzea zer den. Orain arte garaipen bi eta berdinketa bat daramatza. Zapatuan Athletic B-ren kontra jokatuko dute.

Durangoko Kulturalari buruz ere albiste onak baino ez daude oraingoz. Hiru jardunaldi joan direnean, Hirugarren Mailako B Multzoko lider daude, berdinketa bigaz eta garaipen batez. Joan zen asteburuan 0-2 menderatu zuen Sodupe taldea. Josu Gallastegi harrobiko jokalariek sartu zuen lehenengo gola, titular moduan jokatzen zuen estreinako aldian. Bigarren gola Ximon Arangurenek sartu zuen. Asteburu bi barru jokatuko dute hurrengo partidua.



Amorebietaren eta Barakaldoren arteko partiduko une bat. Luis Iturrioz.



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZORNOTZA

LANBIDE PROIEKTUAK
IKASTETxe INTEGRATUA

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ENPLEGUERO ETIA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

K. LANBIDE	IKASTAROAK	ORDUAK
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK		
OC20483841	Erakundearen eremuko esku-hartzeak antolatze laguntza (MF1016_2)	100
OC20483842	Higiene eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan (MF1017_2)	70
OC20483843	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70
OC20483844	Laguntza psikosoziala eta harreman eta komunikazio-arreta erakundeetan (MF1019_2)	130
FABRIKAZIO MEKANIKOA		
19480011	Piezak txirbil-harroketak bidez egiteko CNC programak egitea (UF0879)	80
18480172	Fabrikazio mekanikoko produktuen automatismoen diseinua (UF0450)	50
OC20483838	Karbono-aitzairuzko TIG soldadura (UF1626)	90
OC20483839	Soldadura karbono-aitzairuzko xafila eta profilez estalitako elektrodoekin eta errutilozko elektrodoekin (UF1623)	90
OC20483840	Autocad	40
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
19480015	Automatizazio industrialeko sistemetan matxurak diagnostikatzea eta mantentze zuzentzailea egitea (UF2238)	90
INSTALATZEA ETA MANTENTZEA		
18480170	Linea automatizatuetako funtzionamenduaren programazioa eta kontrola (UF0626)	70
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
19480102	COBOL analista programatzailea (IFCD003PO)	210
19480103	Microsoft Azuren soluzioen inplementazioa IT azpiegiturretan (IFCD20)	100
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIAK Langabetuak (praktikak enpresan)		
20485004	Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa (IMAQ0108)	390
20485121	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitaria ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208)	370

Izen ematea:
www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)

OHARRA: Taldeak sortu ahal, hasiko dira ikastaroak.



2005



2005



2005



2005

Urritxe auzunea, z/g - Tfno: 688 665 300 - 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com - www.fpzornotza.com

DURANGALDE



KO TXOKOAK ?



Infernu zubi


Alluitzeko pasabide honek badu bere xarma. Izenak berak argi azaltzen du zailtasun handiko lekua dela. Ingurua ondo ezagutu ezik, hobe beheko aldetik pasatzea.

Hemen eta online



Sartu **anboto.org**-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA IGO

IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira **anboto.org**-en




HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA / NEGOZIOAK
DENERIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA / KIROLA
FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kotsultatu 94 621 79 02 telefonoan.



Botikak	
BARIKUA, 6 · 09:00-09:00	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	ASTELEHENA 9 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 7 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 10 · 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	EGUAZTENA, 11 09:00-09:00
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-14:00	EGUENA, 12 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	NAVARRO ARTEKALEA 6 · DURANGO
09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 8 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	SARA SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 · ZORNOTZA TZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 · ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**.

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Garazi Lanperrikok 9 urte egingo ditu azaroaren 7an. Zorionak eta urte askotarako, Garazi! Patxo potolo asko familiaren partez. Ondo pasatu zure eguna eta ondo zaindu zure ondoko Txiki haundi hori.

Zorionak gure etxeko bi altxorrei. Azaroaren 5ean **Martxelek** eta 10ean **Xanek**, 4 eta 8 urte egin dituztelako. Besarkada haundi bat etxekoen partez.

Zorionak, **Aner!** Gure etxeko txikiak 3 urte egingo ditu azaroaren 10ean. Jarraitu orain bezain alai eta dibertigarri. Mosu handi bat etxeko guztien partez.

Zorionak, **Nahia!** Urrunetik bada be, zure urteguneko ospatu barik ez da geratuko! Egun ona pasau, eta ea laster elkartzeko aukerie dekokun! Mosu!

Zorionak **Jurgi!** Azaroaren 3an 5 urte egin zenituen. Mutil handi bat egin zara! Mosu handi bat zure familiaren partez.

Zorionak, **Nahia!** Urrunetik bada be, zure urteguneko ospatu barik ez da geratuko! Egun ona pasau, eta ea laster elkartzeko aukerie dekokun! Mosu!

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 20° / 12° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 20° / 11° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 18° / 11° ☁️
DOMEKA 🌡️ 21° / 12° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 17° / 9° ☁️	EGUENA 🌡️ 18° / 11° ☁️

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

“Pintxo on batean, denak lotura bat izatea oinarritzkoa dela uste dut”

Urriaren 27tik 29ra egin den Miniature Pintxos Congress jaialdian egon ondoren, Koldo eta Iñigo Kortabitarte anaiak prest daude Espainiako Pintxo eta Tapa Txapelketan parte hartzeko; azaroaren 9tik 11ra izango da



Iñigo Kortabitarte
Bilbao
Kobika Jatetxea
Durango | 1972

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Kobika jatetxeak Bizkaiko pintxorik onenaren saria lortu du 'Green Bilbao' pintxoagaz, eta Euskadiko pintxo tradizionalik onenaren saria 'Txamaka' pintxoagaz. Kortabitarte anaiek taldekako Iron Chef saria ere ekarri dute etxera: Bizkaia 'Cerdo esférico' proposamenagaz irabazi du Gipuzkoaren, Arabaren, Nafarroaren eta Bizkaiaren arteko lehia.

Pozik lortutako sariekin? Zer suposatzen du zuentzat onarpen honek?

Oso pozik gaude. Zaila izaten da, zer esanik ez gazteak. Gu erretiratzeko gogoz daude, baina oraindino lana emateko moduan gaude (barrez).

Konfort zonatik kanpora mantentzeko balio digute sariek. Beti prest egoten jarraitzeko modua da eta sortzen denari adi egotera behartzen gaitu. Lehiatzea gustatzen zaigu eta, denbora kendu arren, beti zer bait prestatzen egotera behartzen gaitu, erlaxatu barik. Aberasgarria da eta jatetxea bizirik mantentzen du.

Esperientzia handia duzue lehiaketetan. Noiz hasi zineten halakoetan parte hartzen?

2006an. Badira urte batzuk. Bizkaiko txapelketa laugarrenez irabazi dugu, eta 2. saria ere lortu dugu inoiz. Euskadin ere hainbat sari eta aipamen jaso dugu, sari potoloa heldu ez den arren. Aurten, Euskadikoan, pintxo tradizioletan irabazi dugu.

'Green Bilbao' eta 'Txamaka' dira pintxo sarituak. Zer dute berezia?

Oso errazak dira, xumeak. *Green Bilbao*, adibidez, bisualki ez da gauza handia, ez dago larregi apainduta. Baina teknika eta prestaketa lan handia du. Kalkulu milimetrikoa esango nuke. Gauza apartekoa ematen ez duen arren, dastatzerakoan zaporeak harritu egiten zaitu, bete. Itxura erraz batean gauza asko batzea topatu behar dela uste dut.

Zerk inspiratu zaituzte? Ez da erronka erraza urtero pintxo bat sortzea. Ideia da garrantzitsuena. Ondoren, ideia hori landu behar da.

“

Diseinuzko pintxoak dastatzeko dira. Zelan egin diren ulertzeko dira, gosea kentzeko baino gehiago”

—

Green Bilbao pintxoa iaz sortu genuen. Hala ere, ez geunden guztiz konforme eta pintxo hobetzen eman dugu urtea. Pintxo hotza gura genuen, inoiz egin ez duguna, eta inguruagaz identifikagarria. Bada, Durangon dugun baldosaren itxura eman diogu, Bilbokoaren berdina dena. Formatu gozua da ezaguna, baina guk gatzduna egin dugu.

Zer behar du pintxo on batek?

Zentzu bat izatea. Denak lotura bat izatea oinarritzkoa da: platererako errezeta bat edo bi hartu eta horiek txikira eraman behar dira. Bizpahiru mokadutan dena barrura joan behar da, eta kolpean sartuko diren arren identifikagarriak diren hainbat ñabardura batu behar ditu. Pintxo bat diseinatzea ematen duen baino zailagoa da.

Zein da zure pintxorik gogokoena?

Patata tortilla eta urdaiazpiko pintxo zalea naiz. Dena dela, desberdina da pintxo gosea kentzeko jatea, edo dastatzeko jatea. Kontzeptu desberdinak dira, biak balekoak. Diseinuzko pintxo hauek dastatzeko dira, lasai jateko. Zelan egin diren ulertzeko, gosea kentzeko baino gehiago.

Pintxo jana ala platerean jatekoa?

Gurago dut askotatik gutxi jan, gutxitik asko baino. Askoz gehiago probatu eta ikusiko dugu, eta gehiago dibertituko gara. Mokaduak jatea da nire gomendioa, eta okela edo arrain on bategaz amaitzea.

Eguen, bariku eta zapatuetan, sarituta-k pintxoak eskaintzen dituzue. Orain, egoera berrira egokituta.

Hala da, eta oso harrera ona du. Afaltzeko era desberdin eta dibertigarria da. Etsipenez, baina egokitu egin behar. Bezeroari segurtasuna ematea da garrantzitsuena, eta hartzen ditugu neurriak horretarako. Ezinbestean, asko dugu galtzeko eta. Ziurgabetasuna handia da.

Lauhortza

Amaia
Ugalde Begoña
Kazetaria



Euskararen konpasean

Lanetik etxerako bidea irribarre batekin egin dut kotxean. Arratsaldetan Radio Euskadi jartzeko ohitura dut, Graffiti saio freskoak laneko nekea arintzen laguntzen didalako. Sintonizatu dut, eta, hara non, Galder Perez aurkezlea eta Miren Narbaiza kolaboratzailea euskaraz entzun ditudan.

Musika lengoaiari buruz eta konpas motei buruz ibili dira berbetan, eta elkarriketan, oso natural aritu dira gaztelaniatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara saltoka. Azaldutakoa praktikan jartzeko, abestiak ipini eta konpasak elkarrekin kontatu ditugu: “bat-bi-hiru-lau, bat-bi-hiru-lau”; eta ez, ez dute “un-dos-tres-cuatro” esaten izan. Narbaizak ekarritako hainbat kanta, gainera, euskal taldeenak izan dira, eta, bide batez, erreferentzia euskaldunak zabaldu dituzte Radio Euskadin.

Euskarazko hedabideak kontsumitzeko ohitura dugunok —bai, kultura sailburuarentzat politikoki lerratuegiak diren horiek— badakigu zein garrantzitsuak diren gure errealitatea euskaraz eta euskaratik ulertu ahal izateko. Informazio gaindosiaren aroan hankak lurrean ipini eta gertukoaz informatzen, ikasten eta gozaten laguntzen digute, gure hizkuntzan.

Kargua hartu berri duen EITBko zuzendari nagusiak, oster, ez du euskara menperatzen. Eta hori horrela izanda, euskaraz eta euskaratik jardungo duen kalitatezko telebista publikoaren zain jarraitu beharko dugula dirudi. Bada, ez ote da konplexurik barik jokatzeko ordua heldu? Inbertitzekoa, azpitoluak jartzekoa, irrati eta telebista publikoetan euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan entzutekoa?

Estetika
gida
anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491